



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

ALEGAZIO-TXOSTENA, LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZARENA (LEA/AVC), EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOA ETA IKUSKAPEN TEKNIKOEN ERREGISTROA ARAUTZEKO DEKRETUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA

248-SUST-2017 LEA/AVC Proiektua

Aurkibidea:

I. Aurrekariak, LEAren eskumena eta txostenaren xedea	1
II. Administrazio Publikoak ekonomian eta lehiari esku hartzea	3
III. Eraikinen ikuskapen teknikoaren zerbitzua	6
IV. Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren araudi-proposamen berria merkatuetako lehiaren ikuspegitik.....	9
1.- Xedapen orokorrak	9
2. Gaitutako profesionalak	9
3. Hitzarmenak.....	15
V. Ondorioak	16

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero andrea, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, bokala

Enara Venturini Alvarez, bokala

Idazkaria: María Lourdes Muñoa Corral

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak (hemendik aurrera, LEK), 2017ko azaroaren 21eko bilkuran (adierazitakoek parte hartuta), alegazio-txosten hau eman du 248-PROM-2017 zenbakidun espedientean, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa eta ikuskapen teknikoaren erregistroa arautzeko dekretuaren proiektuari dagokionez.

I. Aurrekariak, LEAren eskumena eta txostenaren xedea

2. LEAk jakin duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa eta Ikuskapen Teknikoaren Erregistroa arautzen duen dekretu-proiektua egiteko



prozeduraren izapideak egiten ari da Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.¹

3. Hori betez, administrazio-espedientearen kopia osoa eskatu dio sail horri, eta behar bezala igorri dio LEA honi.

4. Proiektuak zioen azalpen bat eta xedapen-zati bat ditu. Azken horrek 26 artikulua ditu, bost kapitulutan banatuta, eta amaierako zati bat, bost xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bakar bat eta hiru azken xedapen dituena.

5. I. kapituluak dekretu-proiektuaren xedapen orokorrak daude, eta hiru artikulua ditu; xedeari, aplikazio-eremuari eta definizioei buruzkoak dira lehena, bigarrena eta hirugarrena, hurrenez hurren.

6. II. kapituluak eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen du berez, honako artikulua hauen bitartez: 4. artikulua, Eraikinen ikuskapen teknikoaren irismena eta eraginkortasuna; 5. artikulua, Eraikinen ikuskapen teknikoaren helburuak; 6. artikulua, Eraikinen ikuskapen teknikoa; 7. artikulua, Eraikinen ikuskapen teknikoaren txostena; 8. artikulua, Eraikinen ikuskapen teknikoaren edukia.

7. III. kapituluak esku hartzen duten agenteak arautzen ditu honako artikulua hauen bitartez: 9. artikulua, Eraikinen ikuskapen teknikoa egiteko obligazioa; 10. artikulua, Eraikinen ikuskapen teknikorako gaitutako pertsonak.

8. IV. kapituluak eraikinen ikuskapen teknikoaren prozedura arautzen du honako artikulua hauen bitartez: 12. artikulua, Eraikinen ikuskapen teknikoa aurkezteko epeak; 13. artikulua, Diru-laguntza publikoak ematearen oinarri arautzaileak; 11. artikulua, Onuradunak; 12. artikulua, Erakunde laguntzaileak; 13. artikulua, Eraikinen ikuskapen teknikoa egiteko prozedura; 14. artikulua, Babestu edo katalogatutako eraikinak; 15. artikulua, Ikuskapen teknikoa egitearen ondoriozko obligazioak. Hutsak zuzentzea eta erregistroan inskribatzeko epeak.

9. Proiektuaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera nagusia bizitegitarako duten eraikinen ikuskapen teknikoak bete behar dituen irizpide eta betekizunak arautzea. Araudi berriak Etxebizitzaren Legearen (EL, ekainaren 18ko 3/2015) 52. artikulua garatuko du eremu horretan, eta egun indarrean dagoen araudia indargabetuko du. Euskal Autonomia Erkidegoan azaroaren 21eko

¹ Agindua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa eta Ikuskapen Teknikoen Erregistroa arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera ematen baitzaio.



241/2012 Dekretuak arautzen du eraikinen ikuskapen teknikoa. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen du (maiatzaren 20ko 80/2014 Dekretuak aldatu zuen).

10. Legeak erakunde honi promozio arloan ematen dizkion eskumenak erabiliz egin dugu txosten hau². Eskumen horien helburua Euskadiko merkatuetan benetako lehia sustatzea da. Horretarako, zigorrak ez diren neurriak hartzen ditugu, eta, horrelako neurrien esparruan, besteak beste, administrazio publikoekiko harremanak nabarmentzen dira, arau juridikoak proposatzeko eginkizunaren eremuan.

11. Aztergai dugun kasuan lehiaren eta merkatuen arautze eraginkorraren ikuspegitik aztertuko dugu eraikinen ikuskapen teknikoen gainean egin nahi den arauketa hori. Zehazki honako alderdi hauek aztertuko ditugu: eraikinen ikuskapen teknikoaren zerbitzua egiteko gaitutako pertsonak (10. artikulua), haien betekizunak eta eginbeharrak (11. artikulua eta II. eranskina) eta hitzarmenak profesionalen elkargo eta elkarteekin (bigarren xedapen gehigarria).

II. Administrazio Publikoak ekonomian eta lehian esku hartzea

12. Administrazio publikoek ekonomian esku hartzen dute arautzeko ahalmena erabiliz jarduera ekonomikoa arautzen duten xedapenak sortzen dituztenean. Ekonomiaren arloko araudiaren bidezko esku-hartze publiko hori justifikatuta dago merkatuko akatsengatik edota ondasun juridiko jakin batzuk babestu beharagatik. Zenbait kasutan arautu beharreko jardueren garapena oztopatzeko arriskua dago, halere, eta hori justifikatu eta arrazoitu beharra dago.

13. Horregatik, lehia murrizten duen edo zerbitzuak emateko oztopoak ezartzen dituen neurri bat hartu behar dutenean, gutxien murrizten duena hautatu beharko dute, interes publikoa babesteko beharrezkoa dela arrazoitu eta, azkenik, bilatzen dituzten xedeak lortzeko egokia dela ere justifikatu beharko dute, diskriminaziozko tratu-desberdintasunak inola ere egon gabe betiere³.

14. Ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeak, bere aldetik, enpresen arteko lehia bultzatzera behartzen ditu administrazio publikoak, horretarako honako hauek erabiliz: ondasun eta zerbitzuen merkatuetan lehia eta efizientzia indartuko dituzten

² Ikus Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legearen (otsailaren 2ko 1/2012) 3. artikulua.

³ Ikus 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, zenbait lege aldatzeko, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzko Legea egokitzeke.



eta baliabide produktiboen esleipena erraztu eta produktibitatea hobetuko duten arau-esparruak⁴.

15. Hala bada, administrazio publikoek kalitate-irizpideen arabera egokitu behar dituzte arau-ekimenak, eta honako printzipio hauek bete behar dituzte horretarako: beharrizana, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, ulergarritasuna, soiltasuna eta eraginkortasuna.

16. Printzipio horietan honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- a) Beharrizana: interes orokorreko arrazoi batekin justifikatu behar da arau-ekimena.
- b) Proportzionaltasuna: araudiak helburua lortzea bermatuko duen tresna egokiena izan behar du, emaitza bera lortzeko aukera ematen duten neurri hain murriztailerik eta distortsionatzailerik ez dagoela egiaztatu ostean.
- c) Gardentasuna: erregulazioaren eta justifikazioaren helburuek argi definituta egon behar dute.
- d) Eraginkortasuna: arau-ekimenaren oinarrian lortu nahi diren helburuak argi identifikatu behar dira, helburu zuzenak ezarriz eta helburu horiek lortzeko beharrezkoak ez diren kargak saihestuz.

17. Profesionalen zerbitzuak dira lehiaren arloko agintariak gehien aztertutako sektore ekonomikoetako bat, lehiarako murrizketak izan ohi baititu. Azterketa hori ikuspegi bikoitzarekin egin da; batetik, lehia sustatzea, sektorea arautzen duen araudiaren lehiarako murrizketei buruzko txostenak eginez, eta bestetik, lehia defendatzea, lehiaren arloko agintariak zehapen-espedienteak abiarazi eta izapidetuz.

18. Eraikinen ikuskapen teknikoaren zerbitzuak Zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzko legearen mendeko zerbitzua da⁵. Ekonomikoaren araudi eraginkorra egongo bada, beharrezkoa da araudian ezarritako lehiarako murrizketa oro honako printzipio hauetan justifikatuta egotea: beharrizana⁶, proportzionaltasuna⁷ eta diskriminaziorik eza⁸.

⁴ Ikus Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua.

⁵ Ikus azaroaren 23ko 17/2009 Legearen (Zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzkoa) 3.1 artikulua.

⁶ Beharrizanak adierazi nahi du ordena publikoari, segurtasun publikoari, osasun publikoari eta ingurumen babesari buruzko arazoiek justifikatu behar dutela araubide murriztailea.

⁷ Proportzionaltasunak adierazi nahi du helburua lortzea bermatuko duen tresna egokiena izan behar duela araubide murriztaileak, emaitza bera lortzeko aukera ematen duen neurri arinagorik ez dagoelako.



19. Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren zerbitzuen sektoreko operadore ekonomikoentzako murrizketaren justifikazioa aztertu du LEA honek honako honen bidez: «*Lehiaren aldeko gomendioa Eusko Jaurlaritzarentzat eta Euskal Autonomia Erkidegoko Udalentzat*»⁹. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (MLBN) eraikinen ikuskapen teknikoaren zerbitzuak ere aztertu ditu, halaber, eta izan daitezkeen jarduera-erreserbei buruzko txostena egin du eraikinen ebaluatzeko txostenean¹⁰. Era berean, Merkatu Batasuna Bermatzeari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 20/2013) babesean (MBBL),¹¹ eraikinen ikuskapen teknikoak egiteko administrazio publikoaren eskakizuna aztertu du Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak¹². Azkenik, MLBNk Kataluniako Erkidego Autonomoan zerbitzu hori arautzen duen erregelamendu-mailako araua aurkaratu du MBBLren ikuspegitik¹³.

⁸ Diskriminaziorik ezak adierazi nahi du araubide murriztaileak ez duela diskriminatzailea izan behar, ez zuzenean, ez zeharka, naziotasunaren edo bizileku sozialaren kokalekuaren arabera.

⁹ LEA: *Gomendioa, Eusko Jaurlaritzari eta udalei zuzendua, eraikinen ikuskapen teknikoak (EITak) egiteko gaikuntza teknikoak dela eta*. 2016 Hemen eskuragarri: http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/Proyecto%20123%20-%20INFORME%20ITEs%20sin%20firmas.docx_es-ES_eu-ES.pdf.

¹⁰ MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA (MLBN) *Eraikinen Ebaluazioaren txostenean balizko jarduera-erreserbak egoteari buruzko txostena* (NF/DP/0021/14). 2014ko abenduaren 18a. Madril.

¹¹ Merkatu Batasuna Bermatzeari buruzko abenduaren 9ko 20/2013 Legea.

¹² MLBN: *Txostena, 2015eko azaroaren 30ekoa, Merkatu Batasuna Bermatzeari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 20/2013) 26. artikulua babesean aurkeztutako erreklamazioari buruzkoa. Erreklamazioa aurkeztu dute udal batek ez dituelako industriako ingeniari teknikoak onartu bizitegi-eraikinen ebaluazioari buruzko txosten teknikoak sinatzeko teknikari eskudun gisa (UM/080/15). Txostena, 2016ko irailaren 1ekoa, Merkatu Batasuna Bermatzeari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 20/2013) 28. artikulua babesean aurkeztutako erreklamazioari buruzkoa. Erreklamazioa aurkeztu dute udal batek ez dituelako industriako ingeniari teknikoak onartu bizitegi-eraikinen ebaluazioari buruzko txosten teknikoak sinatzeko teknikari eskudun gisa (UM/098/16). Txostena, 2016ko urriaren 3koa, Merkatu Batasuna Bermatzeari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 20/2013) 26. artikulua babesean aurkeztutako erreklamazioari buruzkoa. Erreklamazioa aurkeztu dute Amurrioko Udalak eraikinen ebaluazioari buruzko txostenak egiteko arkitektura edo arkitektura teknikoko titulua eskatzeagatik. (UM/119/16). Txostena, 2016ko urriaren 28koa, Merkatu Batasuna Bermatzeari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 20/2013) 26. artikulua babesean aurkeztutako erreklamazioari buruzkoa. Erreklamazioa aurkeztu dute autonomia-erkidego batek eraikinen ikuskapen teknikoari buruzko txostenak egiteko arkitektura edo arkitektura teknikoko titulua eskatzeagatik birgaitzeko finantza-laguntzak jasotzeko (UM/137/16).*

¹³ MLBNk, 2015eko urriaren 26an, errekurritu egin du Kataluniako Gobernuaren maiatzaren 5eko 67/2015 Dekretua (Etxebizitza-eraikinak zaintzeko, mantentzeko eta birgaitzeko eginbeharra ikuskapen teknikoaren eta eraikinen liburuaren bidez sustatzeko). Dekretu horrek Kataluniako Etxebizitzarako Eskubideari buruzko Legearen (abenduaren 28ko 18/2007) 28. artikulua garatzen du. Artikulu horrek adierazten du «eskudun teknikari» batek sinatutako txostena behar dela eraikinaren egoera egiaztatzeko. Errekurtsua jarri aurretik (gaur egun Auzitegi Nazionalean izapidetzen ari dira), MLBNk Kataluniako Gobernuari eskatu zion dekretua azaldutako moduan alda zezan, baina ez dio eskaera horri erantzun. Merkatu



20. Txosten horiek eta Eraikinen Ikuskapen Teknikoa arautzen duen Kataluniako Dekretuaren aurkaratzeak ezaugarri bera dute, arkitektoen eta arkitekto teknikoaren jarduera-erreserbak aipatutako zerbitzuak emateko justifikaziorik ez egiaztatzea, alegia.

III Eraikinen ikuskapen teknikoaren zerbitzua

21. Eraikinen jabeek egoera onean eduki behar dute eraikina, haiek behar bezala erabiliz eta mantenduz¹⁴.

22. Urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duenak (LHBLTB), xedatzen duenez, etxebizitza kolektiboko bizitegi-tipologia duten eraikinen jabeek haien egoera egiaztatzeko eskatu ahal izango die eskudun administrazioak, gutxienez eraikinen kontserbazio-egoeraren eta irisgarritasun unibertsalari buruzko indarreko araudia betetzearen arloan, bai eta haien efizientzia energetikoaren mailari dagokionez ere¹⁵.

23. Ebaluazio Txostenean ondasun higiezinak zehaztu behar da, katastro-erreferentzia ere aipatuta, eta honako datu hauek ere bildu behar ditu, zehatz-mehatz:

a) **Eraikinen kontserbazio-egoeraren ebaluazioa.**

b) **Irisgarritasun unibertsalaren oinarriko baldintzen ebaluazioa eta**, indarreko araudiari jarraikiz, eraikineri iristeko eta hura erabiltzeko **desgaitasuna duten pertsonak ez diskriminatzeko oinarriko baldintzen ebaluazioa**; eta baldintza horiek betetzeko arrazoizko egokitzapenik egin ote daitekeen zehaztu behar da.

c) **Eraikinen efizientzia energetikoaren ziurtagiria**, indarreko araudian horretarako finkaturiko prozeduraren bitartez eta bertan xedatutako edukiarekin.

Batasuna Bermatzeari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 20/2013) 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz aurkeztu da errekurtsioa, ulertzen baita 7.4 artikuluan arkitektoen eta arkitekto teknikoaren alde jasotzen duen jarduera-erreserbak agian urratzen dituela Legeak aipatutako establezimendu-askatasuna eta zirkulazio-askatasuna bermatzeko printzipioak, ez baita justifikatzen interes orokorreko premia larriren bat babestu beharrik. MLBN: *Kataluniako Etxebizitza Eraikinen Ikuskapen Teknikoan egindako arkitekto eta arkitekto teknikoaren jarduera-erreserbari buruzko txosten ekonomikoa* – UM 33/15. <https://www.cnmc.es/expedientes/um03315>.

¹⁴ Ikus Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legearen (azaroaren 5eko 38/1999) 16. artikulua.

¹⁵ Ikus LHBLTBren 29. artikulua.



24. Etxebizitzari buruzko Legeak (EL) xedatzen du teknikari eskudunak egindako ikuskapen teknikoen bitartez egiaztatuko dutela erabilera nagusia bizitegitarako duten eraikinak unean-unean erregelamenduz eskatzen diren kalitate-baldintzei egokitzen zaizkiela¹⁶.

25. Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren (EIT) helburuak hauek dira:

a) Ikuskapenean begiz hautemandako eta kanpo- zein barne-arrazoien, akatsen, hutsegiteen edo ez mantentzearen ondorioz gertatutako kalteak eta narriadurak identifikatzea.

b) Ikusitako patologien eragile izan daitezkeen eta eraikinen kontserbazio-egoeraren aurretiko diagnostia egitea.

c) Hautemandako kalteak eta haien arteko erlazioa sailkatzea larritasunaren arabera.

d) Kaltearen zenbaterainokoa ebaluatzea, esku hartzeko beharraz erabakitzea, eta esku-hartze mota egokia gomendatzea.

e) Eraikinaren oinarritzko irisgarritasun-baldintzak zehaztea, sarbideetan eta barne komunikazioetan, ataritik etxebizitzetako sarreretaraino, indarrean dagoen legediaren arabera.

f) Eraikinaren ingurutzaileren eta horren berotze- eta girotze-instalazioen elementuen ezaugarriak adieraztea, eraikinaren edo etxebizitzaren eta lokalen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko.

26. Dauden eraikinen segurtasun-, bizigarritasun- eta erosotasun-baldintzak are gehiago ezagutzen laguntzen duen beharrezko eta funtsezko tresna da Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (241/2012 Dekretuaren zioen azalpena).

27. Haren bidez, begiz ikuskatuko dira eraikinaren egitura, fatxada, estalkia eta saneamendu- zein hornikuntza-sare komunak, jakiteko zer eraikuntza-ezaugarri dituen, nolako egoeran dagoen eta zer patologia izan ditzakeen. Horrez gain, eraikinaren ingurutzaileren gaineko datuak ere hartuko dira, haren ezaugarriak zehaztu eta ondoren higiezinaren efizientzia energetikoa aztertu eta/edo ebaluatzeko. Eraikinaren irisgarritasun-baldintzak ere zehaztuko dira, horien berri jasotzeko eta haren eraginkortasunaren administrazio-ondorioetarako (241/2012 Dekretuaren 4.2 artikulua).

28. Jabe diren pertsona fisiko edo juridikoek edo administrazio publikoek dute Eraikinen Ikuskapen Teknikoa egiteko obligazio formala. Jabetzak hartu behar du bere gain EITren kostua. (241/2012 Dekretuaren 4.5 artikulua).

¹⁶ Ikus ELren 52. artikulua.



29. Hirigintzako arau-haustetzat hartuko da EITa behar den epean eta moduan betetzeko eginbeharra ez betetzea. (ELren 52.6 artikulua).

30. LHBLTBk, 30. artikulua bitartez, ezartzen du Eraikinen Ebaluazio Txostena (Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren baliokidea) aginpidea duen teknikari eskudunek edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoetan egon litezkeen ikuskapen-erakunde erregiratuek sina dezaketela, betiere horrelako teknikaririk baldin badute¹⁷.

31. Aginpidea duen teknikari eskuduntzat hartuko da, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legean (EAL) xedatutakoari jarraikiz, proiektuak idazteko edo obrak zuzentzeko eta eraikingintza-obren egikaritzapena zuzentzeko gaitzen duen titulu akademiko eta profesionalen bat duen pertsona, edo azken xedapenetatik lehenean xedatutakoaren arabera txostena egiteko beharrezko den prestakuntza egiaztatu duena.

32. LHBLTBk, azken xedapenetatik lehenaren bidez, ezartzen du Industria, Energia eta Turismo eta Sustapeneko ministroen agindu bitartez zehaztuko direla zer prestakuntza eskatuko diren Eraikinen Ebaluazio Txostenak sinatzeko, bai eta horiek egiaztatze moduak ere. Horretarako, titulazioa, prestakuntza, esperientzia eta ebaluazio-prozesuaren konplexutasuna hartuko dira kontuan. Txosten hau egiteko garaian egin gabe zegoen oraindik erregelamendu bidezko garapen hori.

33. Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean den EITen erregelamenduzko araudiak ezartzen du horretarako gaitzen duen lanbide-titulua, EALren arabera dagokiona, duenak egingo dituela horiek, dela zuzenean profesional gisa, dela eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko erakunde bateko ikuskaritza-teknikari fakultatibo gisa (241/2012 Dekretuaren 7.1 artikulua).

34. Eraikuntza-proiektuak idazteko, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legearen 10. artikulua arkitektoko titulua gaitutzat jotzen du nagusiki administrazio-, osasun-, erlijio-, bizitegi- (horren aldaera guztietan), irakaskuntza- eta kultura-erabilera duten eraikinetarako. Beste erabilera batzuetarako eraikuntzen kasurako, gaitzailatzat ere jo ditu arkitekto tekniko, ingeniari edo ingeniari teknikoko tituluak.

35. Eraikuntza-proiektuak zuzentzeko, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legearen 12. artikulua arkitektoko titulua jo du gaitzailatzat nagusiki

¹⁷ Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen lehen xedapen gehigarriak eskumen-titulua eta -eremua ezartzen ditu. Horrek berak xedatzen du, halaber, 30. artikulua eta azken xedapenetatik lehen Konstituzioaren 149.1.30 artikuluan xedatutakoaren babespean eman direla; izan ere, artikulua horren arabera Estatuari dagokio titulu akademikoak eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko baldintzak arautzea.



administrazio-, osasun-, erlijio-, bizitegi- (horren aldaera guztietan), irakaskuntza- eta kultura-erabilera duten eraikinetarako. Beste erabilera batzuetarako eraikuntzen kasurako, gaitzailatzat ere jo ditu arkitekto tekniko, ingeniari edo ingeniari teknikoko tituluak.

36. Eraikuntza-obren exekuzioa zuzentzeko, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legearen 13. artikulua arkitekto teknikoko titulua jo du gaitzailatzat administrazio-, osasun-, erlijio-, bizitegi- (horren aldaera guztietan), irakaskuntza- eta kultura-erabilera duten eraikinetarako, edota nagusiki aeronautikarako, nekazaritzarako eta abeltzaintzarako, energiarako, hidraulikarako, meatzetarako, telekomunikazioetarako, lurreko, itsasoko, ibaiko eta aireko garraiorako, basorako, industriarako, ontzigintzarako, saneamendu- eta higiene-ingeniaritzarako eta ingeniaritza-obren eta horien ustiapenaren osagarrietarako erabiltzen diren eraikinetarako. Beste erabilera batzuetarako eraikuntzen kasurako, gaitzailatzat jo ditu, baita ere, arkitekto, arkitekto tekniko, ingeniari edo ingeniari teknikoko tituluak.

IV. Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren araudi-proposamen berria merkatuetako lehiaren ikuspegitik

1.- Xedapen orokorrak

37. Aztergai dugun proiektuak araudiaren arabera garatu nahi du Etxebizitzari buruzko Legea EITei dagokienez¹⁸. Halaber, arlo horretan aurretik onartutako araudia ere saiatzen da argitzen hura aplikatzean lortutako esperientzia eta ezagutzak aintzat hartuta.

38. Beste alderdi batzuen artean, erabilera nagusia bizitegirako duten eraikinen EITak Euskal Autonomia Erkidegoan zer irizpide eta baldintza bete behar dituen arautzen du dekretu-proiektuak eta, beste gai batzuekin batera, zerbitzu hori emateko gaituta zer profesional dauden.

2. Gaitutako profesionalak

39. Zioen azalpenean adierazten du EITak sinatzeko behar diren lanbide-prestakuntzak araututa daudela Estatuko oinarrizko araudian eta horretara igortzen du espresuki.

40. Dekretu-proiektuaren 10. artikulua honako hau xedatzen du Eraikinen Ikuskapen Teknikoa egiteko gaituta dauden pertsonen dagokienez:

¹⁸ Etxebizitzari buruzko Legearen 52. artikulua.



1.– Eraikinen ikuskapen teknikoa egiteko, beharrezkoa izango da gaitzen duen titulazio profesional egokia izatea, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren eta Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko urriaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, eta zeregin hori betetzen dutenek zuzenean jardungo dute profesional moduan, edo eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko erakunde bateko ikuskaritza-teknikari fakultatibo moduan. Horrelako erakundeak arau honek arautzen ditu: martxoaren 31ko 410/2010 Errege Dekretuak, eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko erakundeei eta eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko saiakuntzak egiten dituzten laborategiei eskatu beharreko betekizunak garatzekoak.

2.– Aurrekoa alde batera utzi gabe, eraikinaren efizientzia energetikoaren ziurtapena teknikari eskudunek egingo dute, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

41. Dekretu-proiektuaren 11. artikulua, berriz, honako betekizun eta betebeharrak ezartzen die EITa egiteko gaituta dauden pertsonari:

1.– Pertsona fisiko eta juridikoen dekretu honen II. eranskinean jasotako baldintzak eta betekizunak bete beharko dituzte eraikinaren ikuskapen teknikoa egin ahal izateko.

2.– Eraikinen ikuskapen teknikoa egiten duten pertsona fisiko eta juridikoen, ikuskapen tekniko bakoitzaren dokumentazioarekin batera, erantzukizunpeko adierazpena erantsi beharko dute.

3.– Erantzukizunpeko adierazpena bat etorriko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan xedatutakoarekin, eta, gutxienez, eduki hau izango du:

a) Erakundearen edo profesionalaren identifikazio-datuak.

b) Adieraztea erakundeari edo profesionalari eska dakizkiokeen betekizunak betetzen dituela eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa baduela.

c) Adieraztea bezeroari jakinarazi zaizkiola eraikinen ikuskapen teknikoaren norainokoa eta horrek dakartzan betebeharrak, zehaztuta, baita ere, ikuskapenaren ondoriozko obrak horretarako gaitutako beste teknikari batzuek sinatutako proiektu teknikoekin egin daitezkeela.

d) Adieraztea eraikinen ikuskapen teknikoa dekretu honetan ezarritako irizpideen arabera egin dela, eta, gutxienez, dekretu honetan ezartzen diren lokalak bisitatu direla.

4.– Adierazpen hori dekretu honen II. eranskinean xedatutakoaren arabera egin beharko da.

5.– Pertsona fisiko eta juridikoen beren erantzukizunpeko adierazpenean jaso ahal izango dute aldeko auditoriak edo ebaluazio teknikoak dituztela, edo kalitatea kudeatzeko beren sistemen kalitatea egiaztatzen duten jardueren ziurtagiriak.

42. Haren II. eranskinaren bitartez EITa egiteko honako betekizun hauek eskatzen dira:

II. ERANSKINA. PERTSONA FISIKO ETA JURIDIKOEI ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK EGITEKO ESKATU BEHAR ZAIZKIEN BETEKIZUNAK ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA



PERTSONA FISIKO ETA JURIDIKOEI ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK EGITEKO ESKATU BEHAR ZAIZKIEN BETEKIZUNAK

1.– Eraikinen ikuskapen teknikoak egin behar duten pertsona fisiko eta juridikoei betekizun hauek bete behar dituzte:

a) Eraikinaren ikuskapen teknikoak egingo duen teknikari fakultatiboak, egiteko hori burutzeko gaitzen duen titulu gisa, honako hauek ezarritakoa izan beharko du: Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bateginaren 30. artikulua –testu bategin hori urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu du–, eta Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko urriaren 5eko 38/1999 Legea.(.....)

43. Eraikinaren efizientzia energetikoaren ziurtapenari dagokionez, dekretu-proiektuak zehazten du teknikari eskudunek egingo dutela, aplikatu beharreko araudiaren arabera. Horri dagokionez, apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuak (eraikuntzen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen duena) eskudun teknikitza hartzen du proiektuak idazteko edo obrak zuzentzeko eta eraikingintza-obren exekuzioa zuzentzeko gaitzen duen titulu akademiko eta profesionalen bat duen pertsona edo haien instalazio termikoen proiektuak egitea gaitzen duena, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legean ezarritakoaren arabera, edo efizientzia energetikoaren ziurtapenak sinatzea gaitzen duena, edo, laugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako aginduaren bidez ezarritakoari jarraikiz, efizientzia energetikoaren ziurtapenak sinatzeko behar den lanbide-prestakuntza egiaztatu duena¹⁹.

44. Eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko erakundeei eta eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko saiakuntza-laborategiei dagokienez, eska daitezkeen betekizunak garatzen dituen martxoaren 31ko 410/2010 Errege Dekretuak ez du bakar bat ezartzen lanbide-tituluari dagokionez.

45. EITak egiteko gaituta dauden pertsonen dagokienez, berriz, araudi-proposamenak, indarrean den EITei buruzko araudiak bezalaxe, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legearen arabera gaitzen duen lanbide-titulua duena aipatzen du. Xede berarekin, LHBLTBra ere igortzen du.

¹⁹ Auzitegi Gorenaren 2765/2016 Epaia, abenduaren 22koa, Administrazioarekiko Auzien Sala, 177/2013 zenbakidun Kasazio Errekurtsoa. Zuzenbideko Zazpigarren Oinarrian, «(...) eskudun teknikoak teknikoki eskuduna teknikoak da, efizientzia energetikoaren ziurtapen horiek izenpetzeko behar den prestakuntza egiaztatu duena. Ez dago ilegalitatek aurreikuspen horretan, etorkizunean egitea aurreikusitako aginduan xedatzen duena alde batera utzi gabe. Eta ez da ondorioz gabe egindako igorpena –horrela nabarmentzen du mandatutako alderdietako batek–, izan ere, ezartzen du, hain zuzen ere, horretan «efizientzia energetikoaren ziurtapenak izenpetzeko behar diren lanbide-profesionalak zehaztuko direla, baita horiek egiaztatze moduak ere», baina erabateko askatasunik gabe, logikoa denez, esku hartzen duten ministerioentzat, baizik eta, ezinbestean, «titulua, prestakuntza, eskakizuna eta ziurtatzeko prozesuaren zailtasuna» kontuan harturik.



46. Txosten honen 31. lerrokan adierazi dugunez, LHBLTBk aginpidea duen teknikari eskuduntzat hartzen du proiektuak idazteko edo obrak zuzentzeko eta eraikingintza-obren exekuzioa zuzentzeko gaitzen duen titulu akademiko eta profesionalen **bat duen** pertsona, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legean ezarritakoaren arabera. Gainera, ondorengo arauketa baterako uzten du Eraikinen Ebaluazio Txostenak izenpetzeko eskatzen diren prestakuntzak, baita haiek egiaztatzeko moduak ere, zehaztea. Azaldu dugun moduan, arau-aurreikuspen hori ez zegoen beteta txosten hau egin den egunean.

47. Tituluaren, prestakuntzaren, esperientziaren eta zailtasunaren arabera EITak izenpetzeko behar diren prestakuntzak araudiaren arabera zehaztu gabe planteatu dute, hortaz, araudi-proposamena²⁰. Horregatik, kontuan hartu behar da LHBLTBren 30. artikulua eta EALk horretarako xedatzen dutena.

48. LEA honek aztertu du jada EITak egiteko Estatuko eta autonomiako araudian operadore ekonomiko jakin batzuentzat jasotako mugaren justifikazioa. Hala bada, «*Gomendioa, Eusko Jaurlaritzari eta udalei zuzendua, Eraikinen Ikuskapen Teknikoak (EITak) egiteko gaikuntza teknikoa dela eta*» izenekoan LEA honek adierazi du Estatuko eta autonomiako araudiek gaikuntza-tituluen arloan EALri egiten dioten erreferentzia ez dela mugatzailetzat hartu behar, EITek ez baitute ez obra-proiektuen, ez obra-zuzendaritzaren, ezta obra-exekuzioko zuzendaritzaren izaerarik ere. Ezin daiteke onar eraikuntza-proiektu bat burutzeko edo eraikin baten (erabileraren arabera) obra zuzentzeko behar den titulu berbera eskatu behar denik jada eraikitako eraikin bat ikuskatzeko.

49. Zehazki, nagusiki bizitegitarakoak diren eraikinetan EITak egitean ezarritako arkitektoen eta arkitekto teknikoen aldeko jarduera-erreserbari dagokionez, LEA honek adierazi du EITen jarduera ekonomikora jotzeko murrizketa bat dela eta lanbide-zerbitzu horien merkatuan lehia eraginkorra modu larrian murrizten duela, bai eta **murrizketa hori ez dela ez beharrezkoa ezta proportzionala ere**. Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legeak lan hauek bete ditzaketen eskudun teknikaritzat jo ditu ingeniariak eta ingeniari teknikoak: eraikuntza-proiektuak egin ditzakete, obrak zuzendu ditzakete eta obra-exekuzioak zuzendu ditzakete, administrazio-, osasun-, erlijio-, bizitegi- (horren aldaera guztietan), irakaskuntza- eta kultura-erabilera ez duten eraikinetan²¹.

²⁰ LHBLTBren azken xedapenetatik lehen.

²¹ Auzitegi Gorenak eraikinen ebaluazioa egiteko gaitasun teknikoa aztertu du honako epai hauen bitartez: 5292/2014 Epaia, 2014ko abenduaren 9koa, Auzitegi Gorenarena, 4549 errekursoa, eta 5042/2015 Epaia, 2015eko azaroaren 25koa, Auzitegi Gorenarena, 5078/2014 errekursoa.

Soriako Udaleko Eraikinen Ikuskapen Teknikoa ezartzeko udal-ordenantza eta Segoviako Udaleko Eraikinen Ikuskapen Teknikoa ezartzeko udal-ordenantza baliozkotu ditu



50. Jada badauden eraikinetako segurtasun-, bizigarritasun- eta erosotasun-baldintzak lortzea behar beste bermatzen da EITak eraikuntza-proiektuak egiteko, obrak zuzentzeko eta obra-exekuzioak zuzentzeko gaituta dauden teknikariek eginez gero, administrazio-, osasun-, erlijio-, bizitegi- (horren aldaera guztietan), irakaskuntza- eta kultura-erabilera ez duten eraikinen kasuetan. Ez dago ordena publiko, segurtasun publiko, osasun publiko edo ingurumen-babeseko arazorik EITen zerbitzuen prestazioa arkitektoei eta arkitekto teknikoei erreserbatzea justifikatzen duenik.

51. MLBNk, berriz, honako hau adierazi du *Eraikinen Ebaluazioaren txostenean balizko jarduera-erreserbak egoteari buruzko txostena* izenekoan:

«(...) EALK ez du arautzen eraikinak ebaluatzeko jarduera, haien proiektzioa edo eraikuntza baizik, eta horregatik han adierazitako lanbide-titulua duten guztiek (arkitektoa, arkitekto teknikoa, ingeniaria edo ingeniari teknikoa) askatasunez egin ahal izango dute jarduera hori. Erregelamendu-mailako arauaren bidez beste titulu batzuetara hedatzeko aukera alde batera utzi gabe betiere».

52. MLBNk, EITak arautzean Administrazio Publikoaren esku-hartzea egokia den aztertzeko orduan, adierazi du horiek egiteko betekizun batzuk eskatzea justifikatuta egon litekeela erregulazio ekonomiko eraginkorraren printzipioen ikuspegitik, zehazki hirugarrenen gainean izan litezkeen kanpoko efektuengatik. Nolanahi ere, EITak egitean jarduera-erreserba egitea arkitekto eta arkitekto

jurisprudentzia horrek, balioetsiz «harreman agerikoa eta estua dagoela eraikinen edo horietan txertatutako elementu batzuen eraikuntza proiektatzeko edo zuzentzeko behar diren ezagutzen eta horien kontserbazio-egoeraren berri emateko behar diren ezagutza egokien artean, eta zalantzan jarri den arauaren arrazionaltasun juridikoa justifikatzen duela horrek».

Alabaina, ez du aztertu aipatu ordenantzek Zerbitzuen Eskuragarritasun eta Erabilerrari buruzko Legean xedatutakoarekin bat egiten duten. Lehenengo epaian, lege hori ez zen une batean ere alegatu. Bigarrenean, garaiz kanpo alegatu zen, eta, beraz, ez zen alegazioa onartu:

«SEIGARRENA: Azkenik, hirugarren arrazoia —Zerbitzuen Eskuragarritasun eta Erabilerrari buruzko Legearen (azaroaren 23ko 17/2009 Legearen) 4.etik 16.enera arteko artikulua eta 2006/123/EE Zuzentarauarekin, 2006ko abenduaren 12koa eta Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena hori, bat datozen artikulua hausteagatik— ez da aipatu hainbat aldiz aipatutako 4549/2012 kasazio-errekurtsoan, ez eta, hauxe izanik orain garrantzitsuena, *a quo* salaren aurrean formulatutako demandan ere, eta ez zen errekurritutako epaian aztertu —ondorioen idazkian sartu zen soilik—, hortaz, laugarren arrazoia bezala, nahiz eta zergati ezberdinengatik izan, ez da onartu behar, Ekialdeko Gaztela eta Leongo Arkitektoen Elkargo Ofizialak kasazio-errekurtsoaren aurka egindako idazkian adierazi duen bezala, instantzian aipatu ere egin ez ziren —ez, behintzat, demandan eta erantzunetan— arauari buruzkoa izateagatik, eta, nolanahi ere, errekurritutako epaiak ez zituen jaso, eta, beraz, zentzuzkoa denez, ezin izan zen justifikatu aipatu arauen urraketa garrantzitsua eta erabakigarria izan zenik epaia emateko orduan, edo, bestela, c) letrako arrazoia aipatu beharko zatekeen, inkongruentziagatik edo epaiaren arrazoiketa gabeziagatik».



teknikoentzat ez dago erregulazio ekonomiko eraginkorraren printzipioetan justifikatuta²²,

«Arkitekto eta arkitekto teknikoentzako jarduera-erreserbaren bidez zerbitzu hori emateko gaitasuna duten profesional askok esku hartzea eragozten da; profesional asko daude horien artean, ingeniari teknikoak edo fisikoak, besteak beste. Lehiarako murrizketa horrek ez du justifikaziorik merkatu-akats batean edo interes publikoko beste helbururen batean, horretarako gaitasuna ere baduten beste profesional horiei jarduera horretan aritzea eragozteaz ez baita lagungarria informazio-arazoak arintzeko, ezta kanpotasunak zuzentzeko edo eraikinen kalitatea eta segurtasuna handitzeko ere.

Are gehiago, gaitasuna ere baduten beste profesional horien sarrera debekatuta, eraikinen kalitate-maila egokia bermatzeko helburuaren kontra jardungo luke jarduera-erreserbak. Izan ere, zerbitzua emateko gaitasun egokiak dituzten profesionalen sarrera eragotziz mugatu egiten da merkatuko lehia, eta era horretan, pizgarria kentzen zaie araudiaren barruko eta babeseko operadoreei zerbitzuak kalitatez zein prezio onenekin eta berrikuntza handiagoz eman ditzaten. Horrenbestez, operadoreek zerbitzua kalitatez emateko pizgarriak murriztuta, jarduera-erreserbaren bidez ustez lortu nahi den helburuaren kontra egiten da».

Era berean, MLBNk hau ere adierazi du²³,

«...EALren arabera proiektuak idazteko edo obrak zuzentzeko eta eraikingintza-obren exekuzioa zuzentzeko tituludun profesionalen gain, zeinen barruan ingeniariak zein arkitektoak eta aparejadoreak ere egongo lirakekeen, (gaitzen duen titulu akademiko eta profesionalen bat...) EITak egiteko gaitasuna duten bestelako profesionalak ere egon daitezke, baina horrelakoek prestakuntza hori egiaztatu behar dute. (...)»

53. Azaldutakoarekin bat etorriz, EITak sinatzeko gaikuntza profesionala zehazteko orduan Dekretu-proiektuaren 10. artikulua LHBLTBri eta EALri egiten dien erreferentzia ez da ulertu behar arkitektoaren eta arkitekto teknikoaren tituluaren mugatzailatzat, ez baitu lege-oinarririk eta justifikaziorik gaitasunaren edo segurtasunaren arloan.

54. EITak egiteko jarduera arkitektoei eta arkitekto teknikoiei erreserbatzeak eskumen eskusiboa lan hori egiteko gai diren profesionalen multzoaren zati txiki bati esleitzea dakar. Jarduera-erreserbak egiteak eskumen eskusiboa merkatuko operadore ekonomikoen zati bati esleitzea dakarrela, eta horrek murrizketa bat dakarrela helburu den merkatuaren lehia eraginkorrean.

²² MLBN: *Katalunian Eraikinen Ikuskapen Teknikoa egiteko jarduera arkitektoei eta arkitekto teknikoiei erreserbatu izanak prezioetan eduki duen eraginari buruzko txostena* — UM 33/15, Madril (2016), 11. orria.

²³ MLBN: *Txostena, Merkatu Batasuna Bermatzeari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 20/2013) 26. artikulua babesean aurkeztutako erreklamazioari buruzkoa. Erreklamazioa aurkeztu dute autonomia-erkidego batek eraikinen ikuskapen teknikoari buruzko txostenak egiteko arkitektura edo arkitektura teknikoko titulua eskatzeagatik birgaitzeko finantza-laguntzak jasotzeko* (UM/137/16).



55. Eskumena murrizten denean, erabiltzaileek ondorio negatiboak jasan ditzakete zerbitzuetan, horien kalitatea okertu daitekeelako, eta prezio handiagoak eskatu. Ondorio horiekin, kontsumitzaileek ongizatea galtzen dute.

56. Euskal Autonomia Erkidegoan EITak arautzeko esparru bat ezartzeko, zeinaren bitartez erabilera nagusi bizitegitarako duten eraikinetako segurtasun-, bizigarritasun- eta erosotasun-baldintzak ezagutzea behar beste bermatzen den eta, aldi berean, eragindako merkatuan lehia eta eraginkortasuna laguntzen diren, proposamena egin duen Sailari gomendatzen zaio dekretu-proiektuaren 10. artikuluan berariaz ezartzea ezen, EITak egitea gaitzen duten lanbide-prestakuntzak zehazten duen erregelamendu bidezko garapenik ezean, horrelakoak sina ditzaketela EALK aipatzen dituen titulu-takako bat duten profesionalak (arkitektoak, arkitekto teknikoak, ingeniariak eta ingeniari teknikoak).

57. Aurrekoarekin bat etorriz, gomendatzen da II. eranskinean idazketa bera ezartzea pertsona fisiko eta juridikoei ikuskapenak egiteko eska dakizkiekeen betekizunak zehaztean (1.a), baita erantzukizunpeko adierazpenaren eredian ere.

3. Hitzarmenak

58. Araudi-proposamenaren bigarren xedapen gehigarriak ahalmena ematen dio etxebizitzaren arloko eskudun Sailari lankidetzak-hitzarmenak sinatzeko eraikigintzari lotutako profesionalen elkargo eta elkarteekin. Horiek zehaztutako kontu guztien artean, honako hauek jasoko dituzte: Administrazioaren jarraipen- eta kontrol-mekanismoak, aipatutako profesionalen elkargo eta elkarteek eskainitako lankidetzak-jarduerei dagokienez; eta egindako eraikin guztien ikuskapena burutzeko egokitzat jotako beste alderdi guztiak.

59. Araua prestatzeko espedienteak, egiteko prozedurari hasiera ematea onartzen duen aginduaren eranskinean zehazki, adierazten du profesionalen elkargoak gaituta egon daitezkeela EITak egiteko.

60. Horri dagokionez, adierazi beharra dago profesionalen elkargoek, elkarteekin gisa, lehiaren araudia bete behar dutela²⁴.

²⁴ Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren epaia, 1991ko apirilaren 23koa, gai honekin: C-41/90, Höfner eta Elser, Errek. I-1979. or., 2 1. atala. Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren epaia, 1995eko azaroaren 16koa, gai honekin: C-244/94, Fédération française des sociétés d'assurance eta beste, Errek. I-4013. or., 14. atala. Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren epaia, 1997ko abenduaren 11koa, gai honekin: C-55/96, Job Centre, «Job Centre II», Errek. I-7119. or., 21. atala.



61. Elkargo profesionalen Lege honek (EPLk), bere 1. artikuluan, korporazio horien honako funtsezko helburu hauek ezartzen ditu: profesioak gauzatzearen gaineko antolamendua; profesioek erakundeetan berariaz ordezkatuak izateko aukera izatea, derrigorrez kolegiatu behar direnean; kolegiatuen interes profesionalak defendatzea; eta kolegiatuen zerbitzuetako kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak babestea²⁵. Beraz, Kolegiatuen funtzioen artean ez da aurkitzen zerbitzu profesionalak emateko aukerarik, eta horrek, berez, lehia-arazoak sortzen ditu²⁶.

62. Aurrekoarekin bat etorriz, elkargoen eta araua proposatzen duen Sailaren arteko lankidetzak ezin izango du barnean hartu eraikinen ikuskapen teknikoko zerbitzuak ematea.

63. Azkenik, bigarren xedapen gehigarritik profesionalen elkargoen eta elkarten eraikuntzarekiko lotura kentzea gomendatzen da, lankidetzaz hitzarmena sinatu ahal izateko, etorkizuneko erregelamendu bidezko garapenaren arabera, izan ere, eraikuntzarekin zerikusirik ez duten profesionalek ere izan lezakete EITak egiteko gaikuntza.

V. Ondorioak

64. EITak egiteko arkitektoen eta arkitekto teknikoen aldeko jarduera-erreserba ez dago erregulazio ekonomiko eraginkorraren printzipioetan justifikatuta.

²⁵ Profesionalen elkargoei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legea. BOE, 40. zk, 1974ko otsailaren 15ekoa eta Espainiakoa, eta 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Babesari buruzkoa, 2007ko uztailaren 4ko BOE, 159. zk., gero beste lege hauek aldatu zutena: 39/2010 Legea, abenduaren 22koa, BOE-A-2010-19703; 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, BOE-A-2011-4117; eta 3/2013 Legea, ekainaren 4koa, BOE-A-2013-5940.

MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, *110/13 Araudi Proiektuaren Txostenak, 2013ko azaroaren 13ko Zerbitzu eta Elkargo Profesionalen Legearen aurreproiektuaren ingurukoak*, gomendatzen du aurreproiektuan berariaz jasotzea Elkargoek zerbitzuen merkatuan beren kolegiatuekin lehiatzeko galarazpena. Hain zuzen ere, 34. artikuluan (Elkargoen funtzioen ingurukoan) gomendatzen da berariaz jasotzea desagertutako Lehiaren Batzorde Nazionalak hainbat IPNtan gomendatutako galarazpena, zeinaren arabera Elkargoek ez baitute zerbitzurik eman behar merkatuan beren kolegiatuekin lehian. 29. eta 30. or. Era berean, ikusi, LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA, *Euskadiko industria-adarreko Peritu Batzordearen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Ingeniaritzan Graduatuen Estatutuen gaineko txostenak eta Arabako Perituen eta Industria Ingeniari Teknikoen Elkargoko Estatutuen gaineko Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena*. Eskuragarri hemen: http://www.competencia.euskadi.eus/z02-contprof/eu/contenidos/informacion/informes/eu_informes/index.shtml

²⁶ LEA: *Txostena, obra handiaren eraikuntza- eta eraipen-hondakinen eta materialen kudeaketa-txostenaren egiaztapenari buruzkoa*, 2016. Hemen eskuragarri: http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/adjuntos/11_3_informe GESTION DE RESIDUOS web eu.pdf.



65. Modu larrian murrizten du zerbitzu profesional horien merkatuko eskumen eraginkorra eta ez da ez beharrezkoa ezta proportzionala ere.

66. Eraikinetako segurtasun-, bizigarritasun- eta erosotasun-baldintzak lortzea behar beste bermatzen da EITak eraikuntza-proiektuak egiteko, obrak zuzentzeko eta obra-exekuzioak zuzentzeko gaituta dauden teknikariek eginez gero, administrazio-, osasun-, erlijio-, bizitegi- (horren aldaera guztietan), irakaskuntza- eta kultura-erabilera ez duten eraikinen kasuetan.

67. Dekretu-proiektuaren 10. artikulua LHBLTBri eta EALri egiten dien erreferentzia ez da murriztailetzat hartu behar EITak sinatzeko gaikuntza profesionala zehazteko.

68. Horregatik, Sail horri gomendatzen zaio aipatutako manuan berariaz jasotzea ezen, EITak egiteko gaitzen duten lanbide-prestakuntzak zehazten dituen erregelamendu bidezko garapenik ezean, horrelakoak sinatu ahal izango dituztela EALk aipatzen dituen tituluetako bat duten profesionalek (arkitektoak, arkitekto teknikoak, ingeniariak eta ingeniari teknikoak). Era berean, gomendatzen da aurreikuspen hori II. eranskinean ere jasotzea, pertsona fisiko eta juridikoei ikuskapenak egiteko eska dakizkiekeen betekizunak zehaztean, baita erantzukizunpeko adierazpenaren eredian ere.

69. Azkenik, elkargoen eta araua proposatzen duen Sailaren arteko lankidetzak ezin izango du barnean hartu horiek eraikinen ikuskapen teknikoko zerbitzuak ematea.